

BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA ETA GARBIKETA ZEIN HIRI-PAISAIAREN ZAINZA ARAUTZEKO ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Zarautzen, beste hainbat herri eta hiritan bezala, pintada eta kartelek, etxeke animalien gorotzek, lurreko zikinkeriak, ekintza bandalikoek hondatutako hiri-altzariak, zabor-educiontzien erabilera okerrak, legez kanpoko isurketek eta horrelako ekintzek eragindako arazoak jasan behar izaten ditugu.

Udalak azken urteotan ahalegin handia egin du herritarren bizitza-kalitatea hobetzeko, horretarako oztopo arkitektonikoak gutxituz, pintadak etengabe garbitzen saiatuz, hiri-altzariak berrituz, kaleak garbituz, zakarrontzi berriak jarritz eta abar. Horregatik, aparteko garbiketa eta mantentze-lanak egiten gastatzen diren euro horiek guztiak beste zerbituetarako erabil litezke. Gure herriko espazio publikoak eta ondarea errespetatuz gero, aurrekontua lehentasunik handiena duten kontuetarako gorde dezakegu. Eta horren harira, paisaia babesteko eta ingurunea errespetatzeko oso garrantzitsua da ikastetxeek, bizilagunen elkarteek eta talde sozialek, horiek guztiek, elkarrekin, "kontzientzia sortzen" parte hartzea.

Udalak Ordenantza hau prestatu du jokabide zabarrak eta arduragabeak zuzentzeko beste lanabes bat izan dadin, bide publikoetan eta gainerako espazio publikoetan jokabiderako oinarritzko arau batzuk ezarriz, hartara, bizi garen ingurunea zaindu ahal izan dezagun, guztiontzat mesedegarriak diren garbitasuna eta txukuntasuna mantenduz.

ATARIKO TITULUA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Gaia.

Ordenantza honen helburua da bide publikoaren garbiketa arautzea. Era berean, arau honetan jasotako aurreikuspenak aplikatu egingo dira hondartzan, ibaiertzetan, urbanizatu gabeko udal jabetzako zonetan eta Udalak berak, udal erakunde autonomoek zein Udalaren mendeko entitateek kudeatzen dituzten beste espazio publikoetan.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Honako Ordenantza hau Zarauzko udal mugape osoan aplikatuko da eta bertako biztanle eta bisitari guztiek bete beharko dute.

3. artikulua. Bide publikoaren erabilerari buruzko printzipio orokorrak.

1.- Bide eta espazio publikoak eta bertan dauden instalazio eta hiri-altzariak herritar guztiek erabiltzeko eta aprobetxatzeko dira, horretarako norbanakoaren askatasuna eta besteeiko begirunea uztartuz.

2.- Bide publikoan gauzatzen diren jarduerak ezin dute murriztu gainontzeko pertsonen bide publikoa oro har erabiltzeko duten eskubidea, erabilera komun bereziko edo pribatiborako lizentzia edo emakida eduki ezean.

3.- Alkatetzak erabakiko du bide publikoan zein erabilera eta jarduera gauzatu daitekeen, baita horiek bateragarri egingo ere, unean-unean herriaren onurarako garrantzitsuenak direnei lehentasuna emanez. Horretarako, eragozpenak edo bateraezintasunak sortzen dituzten jarduerak aldi baterako debekatu edo murriztuko dira.

4.- Erabilera komun orokorrekin lehentasuna izango dute erabilera pribatiboen aldean, baina azken horiek bateragarri eta bideragarri egiteko ahalegina egingo da, herri onurari kalte handirik sortzen ez badiote.

4. artikulua. Erabilitako kontzeptuen terminologia.

1.- Bide publikoa: bide publikotzat jotzen dira kaleak, plazak, zirkulazio bideak, pasealekuak, hiribideak, espaloiak, bulebarrak, parkeak, lorategi aldeak, bide tunelak eta herritar guztiek erabiltzeko diren gainerako ondasun publikoak.

2.- Hiri-altzariak: jarlekuak, zakarrontziak, jolasak, iturriak, farolak, seinaleak, hondakin-dukiontzia, estatuak, eskulturak, loreontziak, kioskoak, markesinak eta Udalak bide publikoetan jarritako gainerako elementuak.

3.- Hondakinak: apirilaren 21eko 10/1998 Legearen Eranskinen kategorien batean jasotako edozein substantzia, materia edo produktu, baldin eta jabeak horiek botatzeko asmoa edo bota beharra badauka. Hiri-hondakin solidotzat joko dira etxe, denda, bulego eta zerbitzuetako hondakinak eta ezaugarriengatik edo osaeragatik etxeko hondakinen baliokidetzat jo daitezkeenak.

4.- Panfletuak: inprimatutako era guztietako propaganda, kartela ez beste: foiletuak, pegatinak, triptikoak etab.

5.- Establezimenduak: aipatutako ondorioetarako establezimendutzat jotzen da aurretik udal lizentzia behar duen jarduera gauzatzeko lokala.

6.- Obrak: halakotzat joko dira eraitsi, urbanizatu, eraiki, birgaitu eta zaharberritzeko lanak, lurrak mugitzea, kanalizazioak prestatzea eta antzekoak.

7.- Kartelak: izendapen horretan jasoko dira eraikin publiko edo pribatuetan, zuhaitz eta hiri-altzarietan, euskarri egokiak erabiliz, jarritako era guztietako propaganda: paskinak, kartelak, pankartak, banderatxoak etab.

8.- Pintadak: halakotzat jotzen dira bide publikoan, zoladuran, edozein eratako hormetan, eraikinetako paretetan, edo herriko edozein egitura-elementu zein altzaritan, eskuz edo beste era batzuetara udal baimenik gabe egindako idazketak. Hiri-altzarietako eta bide publikoetako kristaletan arrastoak egitea eta zuhaitzetan eta hiri-altzarietan ebakiak egitea ere hor sartuta daude.

9.- Muralak eta graffitiak: halakotzat jotzen dira bide publikoan, zoladuran, edozein eratako hormetan, eraikinetako paretetan, edo herriko edozein egitura-elementutan zein altzaritan, eskuz edo beste era batzuetara Udalak baimenduta egindako idazketak.

Udal baimena ematea Ordenantza honetako 1. eranskinean adierazitako postulatuaren baldintzapean egongo da.

5: artikulua. Lizentziak eta baimenak.

1.- Udalaren obra lizentzietan eta Ordenantza honek aurreikusitako lizentzia eta baimenetan fidantza jartzeko eskatu ahal izango da, kaleko garbiketa eta apainketa kontuetako obligazioei erantzuteko. Epe jakin baterako emango dira beti eta epea amaitu baino lehenago ere indargabe utzi ahalko dira.

I. TITULUA

6. artikulua. Hiri-altzariak eta espazio publikoak zaintzea

1.- Udalerrian dauden hiri-altzariak ondo erabili beharko dituzte pertsona guztiek, behar bezala kontserbatzea eta erabiltzea ez galarazteko moduan errespetatuz eta erabiliz.

2.- Hiri-altzariak zikintzen eta hondatzen dituzten/ edo ditzaketen ekintza guztiak debekatuta daude, honako hauek bereziki:

- a) Hiri-altzariak hondatzea errotik aterata, iraulita, erabiltzeko moduan ez direla utzita edo txikituta.

- b) Zaborrak edo paperak botatzea horretarako jarritako zakarrontzietatik kanpo.
- c) Zakarrontzietan edo hiri-hondakinak jasotzeko edukiontzietan tresna edo gauza arriskutsuak edo kaltegarriak botatzea. Ondorio horietarako tresna edo gauza arriskutsutzat joko dira pertsonen edo ingurumenari kaltea eragin diezaieketen elementu guztiak:
 - 1.- Animaliak edo animalia-hondarrak; sutea eragin dezaketenak, esate baterako, ondo itzali gabeko zigarroak eta pospoloak, pilak, bateriak, tresna elektrikoak, pintura-poteak edo espraiak, bonbillak eta fluoreszenteak.
 - 2.- Xiringak edo estupefazianteak kontsumitzeko tresnak, gaixotasunak kutsatu edo zabaldu ditzaketen osasun arloko materialak, eta produktu kimikoak, erradioaktiboak, piroteknikoak edo lehergarriak.
- d) Pintura-hondarrak bide publikora nahiz edukiontzietara isurtzea.
- e) Edukiontziak tokiz mugitzea.
- f) Bide publikoan animaliei jana ematea edo gizakiok ura edateko diren iturrietatik zuzenean edaten uztea.
- g) Iturri publikoetako hodiak, txorrotak eta gainerako osagaiak berez erabili behar diren bezala ez erabiltzea. Era berean, debekatuta dago iturri publikoak eta urmaelak zikintzea, horko ura garbitzeko edo bainatzeko erabiltzea edo uretan sartzea, eta baita uretara edo hustubideetara botatzea ere detergenteak, koloratzaileak, produktu kimikoak eta kiratsa darien edo ingurumeneari kalteak eragin ditzaketen era guztietako substantziak

7. artikulua. Parke eta lorategi publikoak

- 1.- Herritarrek nahitaezkoa dute herriko parke eta lorategi publikoak errespetatzea.
- 2.- Parke, lorategi eta lorontzietako landareak eta bide publikoetako zuhaitzak behar bezala zaintzeko debekatuta daude honako hauek:
 - a) Landareak lapurtzea.
 - b) Landareak edo belarra hondatzea eta kanpatzea, ez ordea belarretan eseri edo etzatea.
 - c) Zuhaitzak hondatu ditzaketen ekintza edo manipulazioak egitea; esate baterako, zuhaitzak inautzea, moztea edo puskatzea.

- d) Zuhaitz-azalak grabatzea edo pintatzea, puntak iltzatzea eta zuhaitzetara bizikletak, eskailerak, tresnak, aldamio-euskarriak eta kartel edo pankartak lotzea.
- e) Aldi baterako baino ez bada ere, zuhaitzen kontra obrako materialak pilatzea edo haien gainean produktu toxikoak botatzea.
- f) Berdeguneetara zaborrak, hondakinak, harriak edo graba botatzea, eta baita berdeguneetan kaltea eragin edo horien estetika eta erabilera hondatu lezakeen inolako produkturik botatzea ere.
- g) Belarretan eta lorategietan gorotzak uztea. Animaliei dagozkien kasuetan, ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARA jo behar da (GAO 38 zk., 1996ko otsailaren 22koa).

II. TITULUA

BIDE PUBLIKOAREN GARBITASUNA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

I. ATALA: Bide publikoaren garbiketa herritarren ohiko erabileraren ondorioz

8. artikulua. Udalaren eginbeharra

Udal zerbitzuak eta/edo garbiketaren esleipena duen enpresa arduratu behar dira udalerriko espazio publikoak garbi eta osasungarritasun-baldintza onetan mantentzeaz. Horretarako, Udalak behar den bestetan beteko du zerbitzu publiko hori eta dagozkion zaintza eta polizia eskumenak ere erabiliko ditu.

9. artikulua. Herritarren eginbeharrak eta laguntza

1.- Herritar guztiak behartuta daude udalerria oro har eta bereziki espazio publikoak garbi mantentzera.

2.- Loreontziak eta landareak bide publikora urik isuri gabe ureztatu beharko dira, soberan geratzen den ura hartzeko zerbait jarritz.

3.- Bide publikoan edo jendea ibiltzen den barruko patioetan dauden balkoi, begiratoki eta leihoetan alfonbra, erratz, trpuak eta horrelakoak goizeko 6:00etatik 9:00etara astindu beharko dira, inongo kalterik eta eragozpenik sortu gabe.

4.- Udal zerbitzuak eta udaltzainak denbora guztian arduratu beharko dira garbiketa-kontuetan herritarrek dituzten obligazioak betearazteaz, egindako kaltea berehala konpontzeko eskatuz, dagokion salaketa jartzeari utzi gabe.

10. artikulua. Debeku espezifikoak

Debekatuta dago bide publikoa zikindu dezakeen edozein ekintza egitea, eta bereziki honakoak:

1. Ibilgailuak bide publikoan garbitzea.
- 2.- Motorraren olioak aldatzea edo kalea zikindu dezakeen beste edozein likidorekin ibiltzea.
- 3.- Kanean kaka edo pixa egitea eta txistua botatzea.
- 4.- Hondakinak, zaborrak edo panfletoak bide publikora botatzea edo bertan uztea. Panfletoak botaz gero, dagokien udal zerbitzuek garbituko dute banaketa horrek zikindutako hiri-espazioa eta, jar dakizkiekeen zigorrez gain, arduradunek ordaindu beharko dituzte egin beharreko ezohiko zerbitzuak.
- 5.- Leihotik edo balkoitik behera piztutako zigarroak, landare-hondarrak edo oinezkoen kalterik eragin diezaiekeen objekturik botatzea.
- 6.- Hildako animaliak uztea.
- 7.- Bide publikoan bazter batean uztea supermerkatuetako karroak, ibilgailuak (kotxeak, bizikletak, motorrak, etab.) altzariak eta etxetresna elektrikoak.

11. artikulua. Hondakinak non utzi

- 1.- Hondakinak Udalak adierazitako tokietan utzi beharko dira, Udalak 2005eko apirilaren 27an onartutako HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO UDAL ORDENANTZAN (GAO 130 zk., 2005eko uztailaren 11koa) aurreikusitako modu eta ordutegian.
- 2.- Debekatuta dago zabor-poltsetan, bide publikoetako edukiontzietan zein obra-hondarrak jasotzekoetan, bila ibiltzea eta hondakinak hartzea.

12. artikulua. Nola erabili zakarrontziak

- 1.- Hondakin solido txikiak (itzalitako zigarroak, azalak, txikleak, paperak, poltsak, bilgarriak eta antzekoak) zakarrontzietan utzi beharko dira, baina material

birziklagarriak badira, zaborren gaikako bilketa egiteko bide publikoan jarritako edukiontziak erabiliko dira.

II. ATALA: Merkataritzako edo industriako jardueren ondorioz egin beharreko garbiketa.

13. artikulua. Ingurua garbitzea

Merkataritzako edo industriako jardueraren batek bere inguruan edo baimendutako espazioan zikinkeria sortzen badu maiz, establezimenduaren arduradunek erasandako bide publikoaren zatia garbi mantendu beharko dute; horrez gain, emandako lizentziei aplikatu beharreko arauditik eratorritako neurri zuzentzaileak eta bestelako obligazioak ere izango dituzte.

14. artikulua. Erakusleihoak

1.- Erakusleiho, establezimendu, salmenta-gune eta antzekoak garbitzeko garaian kontuz ibili beharko da bide publikoa ez zikintzeko, eta kalean dabiltzanei eragozpenik ez sortzeko moduko ordutegian garbituko dira.

2.- Erabiltzen ez diren establezimendu itxietako jabeak arduratuko dira fatxadak garbi eta egoera onean mantentzeaz.

Udalak erakusleihoen garbiketa subsidiarioki egin behar badu, aldeztu aurretik txosten juridikoa eskatuko da, erakusleihoko kristalak jasan lezakeen edozein kalteren ondorioz ondare-erantzukizuneko eskaerarik egon ez dadin.

15. artikulua. Lokalen barruko garbiketa

Lokal edo pabilioi pribatuen barruko garbiketa egiteko garaian ezin da bide publikoan zikinkeriarik utzi, ez eskuzko tresnen bidez, ez bitarteko mekaniko edo hidraulikorik erabiliz, ez eta mahuka bidez ura presioan botata ere.

16. artikulua. Toldoak eta pertsianak

Beheko solairuetako lokalen toldoak eta pertsianak egoera onean eta garbi egon beharko dira, eta hondatuta baldin badaude aldatu egin beharko dira.

17. artikulua. Errotuluak, plakak eta gainerako ezaugarriak

Bide publikoan errotulu, plaka eta ezaugarriak jartzeko udal lizentzia eskatu beharko da. Garbi egon beharko dira eta hondatutakoan berriak jarri beharko dituzte.

18. artikulua. Isurketak

- 1.- Isuri daitekeen materiala garraiatzen duten ibilgailuak isurketarik ez egoteko moduan kargatu eta hornitu behar dira. Isurketarik egonez gero, zikindutako galtzada edo bidearen zatia berehala garbitu beharko da, eta ibilgailuaren gidaria arduratuko da garbiketa horretaz.
- 2.- Ibilgailuak kargatu edo husteko garaian espaloia edo galtzada zikinduz gero, lanak bukatu orduko garbitu egin beharko dira. Garbiketa hori ibilgailuaren gidariak egin beharko du edo, subsidiarioki, zamaketa edo hustuketa lanak egin diren establezimendu edo finketako titularrek.
- 3.- Zikindu duten ibilgailuen titularrek eta/edo jabeek ez badute zikindutakoa garbitzen, udal zerbitzuek egingo dute eta garbiketaren kostuak haiek ordaindu beharko dituzte.

**II. KAPITULUA: ERABILERA KOMUN BEREZIAREN, PRIBATIBOAREN ETA EKITALDI
PUBLIKOEN ONDORIOZ GARBITU BEHARRA**

19. artikulua. Erabilera bereziaren edo pribatiboaren ondorioz zikindutako zonaren garbiketa

- 1.- Erabilera komun bereziak eta/edo pribatiboak bide publikoan eragindako zikinkeriararen erantzule izango dira erabilera horietarako baimena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak edo horien emakidadunak.
- 2.- Aldi baterako jartzen diren zein finkoak diren establezimenduen eta beladoreen titularrak, esate baterako, tabernak, kafetegiak, kioskoak, salmenta-postuak eta antzekoak dituztenak, behartuta daude instalazioak eta eragindako hiri-espazioa garbi eta txukun edukitzera.
- 3.- Ostalaritzako establezimenduek erabiltzen dituzten beladoreak eta bertako altzariak, finkoak izan zein aldi baterako jarrita egon, horien titularrek garbitu beharko dituzte establezimendua itxi eta gehienez ere ordubetean, nahiz eta egunean zehar aldian-aldian erraztu eta garbitu ere egin behar izan.
- 4.- Hondakinak sortzen dituzten establezimenduei hondakinak gaika bildu eta gordetzeko ontzi homologatuak jartzeko exijitu ahalko die Udalak eta horien garbiketaz eurak arduratu beharko dira.
- 5.- Hilean behin egiten den Feriako saltzaile ibiltariek, saltzen bukatutakoan, garbi eta txukun utzi beharko dute okupatu duten zona. Obligazio berbera izango dute bide publikoan edozein produktu saltzeko baimena dutenek.

6.- Debekatuta dago estolderia-sarera edo iturri publikoetara likidorik edo hondakinik botatzea.

20. artikulua. Ekitaldi publikoak.

1.- Jabetza publikoko espazioetan egindako ekitaldien antolatzaile pribatuak izango dira ekitaldian sortutako zikinkeriararen arduradunak.

2.- Egingo den ekitaldiaren arabera, erabakitzen den tokietan komun publiko kimikoak jartzeko eskatu ahal izango die Udalak antolatzaileei.

3.- Gainerakoan, Ordenantza honek beste Ordenantza honen 22. artikulura bidaltzen du: BAI JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, BAI JOLAS JARDUERAK ETA BAI —JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, HERRIKO JAIK EDO BESTELAKO KULTUR EKITALDIAK DIRELA BIDE— INSTALAZIO EDO EGITURA BEHIN-BEHINEKOETAN, ERAMANGARRIETAN, EDO DESMUNTAGARRIETAN EGITEN DIREN SALMENTAK ARAUTZEKO ORDENANTZA (GAO 153 zk., 2009ko abuztuaren 17koa).

21. artikulua. Jaietan animaliak erabiltzen direnean

Ekitaldietan edo jaietan animaliak erabiltzen badira, ekitaldia bukatu eta animaliak eraman orduko, horiek sortutako zikinkeria kendu beharko dute antolatzaileek.

22. artikulua. Kanpatzea

1.- Ezingo da kanpin-dendarik edo kanpatzeko ibilgailurik jarri hartarako baimenik ez duten gune publiko eta pribatuetan. Ezingo da janaririk prestatu ez eta mahai eta aulkirik jarri ere bide publikoetan, parkeetan eta lorategietan, aparteko baimenik izan ezean.

2.- Hondartzari dagokionez, Ordenantza honek ZARAUZKO HONDARTZAKO ERABILERA-ARAU BIDEA ETA JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAra bidaltzen du (GAO 105 zk., 2004ko ekainaren 4koa; 189 zk., 2006ko urriaren 4koa; eta 25 zk. 2009ko otsailaren 9koa).

3.- Espazio publikoak arauz kanpo okupatzen dituzten kanpin-denda, ibilgailu edo edozein eratako materialen jabeak eta erabiltzaileak okupazio hori bertan behera utz dezaten eskatuko die Udaltzaingoak, dagokion salaketa egiteari utzi gabe. Esandakoa egin ezean, eta jabeak edo erabiltzaileak aurkitzea ezinezkoa bada, Udaltzaingoak beharrezko dituen bitartekoak erabili ahal izango ditu horiek guztiak dauden tokitik berehala kentzeko, eta horrek eragiten dituen gastuak erabiltzaileek ordaindu beharko dituzte.

III. KAPITULUA. OBREN ONDORIOZ BIDE PUBLIKOA GARBITU BEHARRA

23. artikulua. *Neurriak hartu beharra*

1.- Jarduera eta obra guztien titularrek, nahitaezko lizentzietatik eratorritako obligazioak betetzeaz gain, bide publikoa ez zikintzeko neurriak hartu beharko dituzte, zikindutako zatia garbitu beharko dute egunero eta geratzen diren material-hondarrak ere jaso egin beharko dituzte.

2.- Eraikitzen, birgaitzen, zaharberritzen edo eraisten ari diren eraikinen kasuan, obraren kontratistak garbitu beharko du egunero zikindutako bide publikoaren zatia eta obra bukatutakoan, berriz, obrak eragindako zona guztia.

24. artikulua. *Obra babestea*

1.- Zikinkeriarik sor ez dadin, bide publikoari eragiten dioten lanak edo obrak egiten dituzten pertsonen lantokiaren inguruko bide publikoa elementu egokien bidez babestu beharko dute, hartara, lurrak eta hondakinak zabaltu ez daitezen baimenduriko tokitik kanpora.

2.- Obrak mugatutako bide publikotik kanpo ezin da utzi lur, hondar, graba eta bestelako materialik ez eta eusteko, induskatzeko zein eraikitze erabiltzen diren gainerako elementu mekaniko laguntzailerik ere, baldin eta dagokion obra lizentzian Udalak horretarako baimenik eman ez badu, eta espazio hori beti egon beharko da garbi.

3.- Eguneko lanaldia amaituta, bide publikoan egindako zangak, kanalizazioak eta bestelako lanak egin diren tokiak behar bezala babestuta eta seinaleztatuta geratu beharko dira eta gauez balizak jarrita, istripurik gerta ez dadin.

25. artikulua. *Garbiketarako neurriak*

1.- Galtzada ez zikintzearen, ibilgailuak bide publikora irten aurretik gurpilak eta gainerako elementuak garbitu ahal izateko beharrezko diren bitarteko guztiak jarri beharko dira (plataforma bat ere bai) obra-barrutian.

2.- Horrelako neurririk hartzen ez bada, dagokion isuna jartzeaz gain, obrako ibilgailu horiei bide publikora ateratzea debekatu die Udaltzaingoak.

26. artikulua. *Hormigoi-makinak*

1.- Debekatuta dago hormigoia hormigoi-kamioian eramatea, baldin eta deskarga-ahoa hormigoia bide publikora ez isurtzeko dispositibo batez estalita ez bada.

2.- Hormigoi-kamioiak ezin dira garbitu ez bide publikoan ez eta horretarako egoki ez den beste edozein tokitan ere.

Aurreko bi atalak ez betetzearen erantzukizuna ibilgailuaren jabearena eta gidariarena izango da, eta erantzule subsidiarioak, berriz, obra sustatzailea edo zerbitzua jasotzen duen jardueraren titularra izango dira; behartuta egongo dira hormigoia edo isuri duten hondakina jasotzera, bide publikoa garbitzera eta bertan eragindako kalte guztiak konpontzera, eta baita ezartzen zaien isuna ordaintzera ere.

27. artikulua. Lurra eta obra-hondakinak garraiatzea

1.- Lurra eta obra-hondakinak garraiatzen dituzten ibilgailuek garraiatzen dabiltzana bide publikora isur ez dezaten beharrezko diren baldintzak bete beharko dituzte.

2.- Lurra eta obra-hondakinak garraiatzen dituztenak behartuta daude zikindutako bide zatia zikindu orduko garbitzera, baldin eta bide publikoa zamalanetan edo garraio-lanetan zikintzen badute.

28. artikulua. Obra-erakundeak

1.- Debekaturik dago obra-hondakinak bide publikora botatzea, bertan lagata uztea edo hiri-hondakin solidoak botatzeko diren edukiontzietara botatzea.

2.- Obra-hondakinak Udalak baimendutako obra-erakundetara sartu beharko dituzte. Horri dagokionez, Ordenantza honek men egingo dio EDUKIONTZIAK JARTZEKO BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAK (GAO 21 zk., 2003ko otsailaren 3koa) 7, 8 eta 9 artikuluetan ezarritakoari.

III. TITULUA

ERAIKINAK KANPOTIK GARBITZEA

I. KAPITULUA. ERAIKIN PUBLIKO ETA PRIVATUEN KANPOALDEA GARBITZEAZ ETA HIRIKO PAISAIA ERRESPECTATZEAZ

29. artikulua. Eraikinen kanpoaldeko elementuak eta aldeak garbitzea eta zaintzea

1.- Eraikinen jabeak eta establezimenduen titullarrak behartuta daude horiek behar bezain garbi edukitzera, eta garbitu egin beharko dituzte horien zikinkeria hauteman badaiteke edo, udal zerbitzuek txostena egin ondoren, Udalak hala agintzen badu.

30. artikulua. Publizitatea

1.- Kanpoko publizitatea, dena delako euskarritan egin edo dena delako ezaugarri edo helburu eduki, publizitatea jartzeko berariaz prestatutako lekuetan baino ezin izango da jarri eta, betiere, alor horretako arau bereziak beteta.

2.- Ildo beretik eta Udalaren berariazko baimena eduki ezean, debekaturik dago bide publikotik ikus daitekeen edonolako iragarkirik edo kartelik jartzea arkupeetan, markesinetan, hiri-altzarietan, zuhaitzetan, hormetan, tuneletan, lurpeko pasabideetan eta, oro har, horretarako bereziki prestatutako lekuetatik kanpo (horien artean sartzen da publizitate partikularra pisua bilatzeko, klase partikularrak hartu/emateko, lana eskatzeko etab.) Era berean, inon ere ezingo da jarri pegatina, kartel, paskin, pankarta edo banderatxo mehatxagarri, iraingarri edo giza eskubideak erasotzen dituenik.

3.- Alkatetzak ez du baimenik emango harik eta honako baldintza hauek bete arte:

- a) Eskatera idatzia.
- b) Hala badagokio, Udalaren ondasun eta instalazioen erabilera zuzenaz erantzuteko eta baimena eman zen momentuan horiek zeuden egoera berean uzteko bermea jartzea.
- c) Prezio publiko modura ordaindu beharreko diru-kopurua ordaintzea

4.- Neurri horiez gain, Udalbatzarrak beste neurri osagarri batzuk edo aurrekoak garatzekoak erabaki ahal izango ditu.

5.- Ondasunen erabilera amaitu ondoren, baimena eman zen unean zeuden egoera berean utzi beharko dira.

6.- Nolanahi ere, baimenean adierazi egin beharko dira erakusketaren iraupena eta, Ordenantza honetan agindutakoarekin bat etorrita, Alkatetzak egoki iritzitako zehaztapen edo baldintza partikular guztiak.

7.- Publizitatearekin udal ondasunak okupatu behar badira, Udalak zenbait elementu jartzea edo espazioak mugatzea erabaki dezake eta aldi berean egon litezkeen interes guztiak errespetatzeko moduan arautu horien erabilera.

31. artikulua. Pintadak

1.- Debekatuta dago pintadak egitea bide publikoan, eraikin publikoetako fatxadetan, hiri-altzarietan, zuhaitzetan, estatuetan, monumentuetan eta, oro har, hiri-paisaiaren edozein elementutan.

2.- Era berean, debekatuta dago aurreko atalean adierazitako tokietan arrastoak egitea.

3.- Salbuetsita geratzen dira orubeetako hesietan, obra itxituretan, tarteko hormetan edo beste hainbat tokitan marrazten diren muralak eta graffitiak, baina betiere, aldezturik Udalaren baimena lortu bada eta 1. eranskinean adierazitako zehaztapenak betetzen badira.

Dena dela, baimen eskaerarekin batera eta, dagozkion gainerako baldintzak bete behar izateaz gain, nahitaezkoa izango da eraikinaren jabearen adostasuna egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea.

4.- Eraikin publiko batean edo hiri-altzariko elementuren batean pintadak egiten badira, paperak jartzen badituzte, kristalei arrastoak egiten badizkiete, kartelak eranstean badira edo horiek hondatzeko moduko edozein ekintza egiten bada, dagokion isuna jartzeaz gain, Udalak enpresa, erakunde edo pertsona arduradunari egotziko dizkio garbiketa eta txukunketa lanen kostuak.

5.- Udal zerbitzuek berehala ezabatuko dituzte pintadak eta garbiketaren kostua pintadak egin dituztenek ordaindu beharko dute.

32. artikulua. Kartelak eta pankartak

32.1. artikulua. Kartelak jartzea

1.- Udalak herriko hainbat tokitan informazio-panelak jarriko ditu partikularrek, erakunde eta entitateek kartelak jar ditzaten bertan.

2.- Kartelak jartzeko zinta itsasgarria baino ezingo da erabili eta debekatuta dago horretarako grapak, txintxetak, kola eta antzekoak erabiltzea.

3.- Informazio-panel guztiak astelehenero garbituko dira urte osoan zehar eta garbiketa egiteko garaian panel horietan dauden kartel, zinta itsasgarri eta era guztietako elementuak kendu egingo dira.

4.- Udalak berariaz eman ahalko du baimena obra-hesietan eta beste zenbait tokitan kartelak jartzeko ondorengo kasu hauetan:

- Herriko jaietan eta festa tradizionaletan
- Herrian entzute handiko kultur, arte eta kirol ekitaldiak egin behar direnean.
- Herriarentzat onuragarri diren kontzertu, ekitaldi edo erakusketen ospakizuna goratzen laguntzen dutenean
- Hauteskunde kanpainetan, behar bezala baimendutako tokietan.
- Alkatetzak berariaz adierazitako egoeretan.

5.- Kartel edo pintada mehatxagarri, iraingarri edo Giza Eskubideen Aldarrikapeneko edozein artikuluri eraso egiten dionik baldin badago Alkatetzak 2008ko otsailaren 15ean Dekretu bidez agindutako protokoloan adierazitako prozedura aplikatuko da.

32.2. artikulua. Pankartak jartzea

1.- Bide publikoan pankartak jartzeko baimena herriko jaiak direnean edo Alkatetzak berariaz adierazitako egoeretan emango da.

2.- Pankarten edukiari dagokionez, 32.1 artikuluko 5. atalean ezarritako araudi bera bete beharko da.

3.- Pankartak jartzen uzteko baimen-eskaeran honakoak agertu behar dira:

- Pankartaren edukia eta neurriak
- Zein tokitan jarri nahi diren.
- Zenbat denboran egongo den jarrita.

4.- Pankartek bete beharreko baldintzak zehaztu beharko dira Alkatetzak ematen duen baimenean eta, nolanahi ere, honakoak:

- Pankartaren gainazalak haizearen eragina gutxitzeko beste zulo eduki beharko ditu. Dena dela, pankartaren %25a gutxienez egon beharko da zulatuta.
- Pankarta jartzeko gutxieneko altuera, punturik baxuenetik neurtuta, bost metrokoa izango da pankartak galtzada gurutzatzen duen kasuetan eta hiru metrokoa, berriz, espaloi, pasealeku eta oinezkoen zonetan jartzen direnean.

5.- Ez da baimenik emango pankartak zuhaitz, farola eta antzeko beste elementu batzuetara lotzeko.

6.- Pankartak interesatuek eurek kendu beharko dituzte iraungi eta hurrengo bi egunetan, eta egiten ez badute, udal zerbitzuek subsidiarioki kenduko dituzte, baina horrek eragindako gastuak pankartak jarritakoek ordaindu beharko dituzte.

33. artikulua. Eraikin bereziak

1.- Katalogatutako eraikinetan, eraikin historiko-artistikoetan eta esanguratsuetan ez da inolako publizitaterik onartuko, eta ezingo da kartelik, banderatzorik edo errotulurik erakutsi; salbuespen izango dira eraikinaren ezaugarrien berri ematekoak, eraikinean egingo diren jarduerak aipatzekoak edo zaharberritzeko edo birgaitzeko obrei buruz dihardutenak.

II. KAPITULUA. URBANIZAZIOAK ETA ORUBEAK GARBITZEAZ

34. artikulua. *Espazio pribatuen garbiketa*

- 1.- Urbanizazio pribatuetako espaloi, pasabide, galtzada, plaza eta lorategiak jabeek garbitu beharko dituzte
- 2.- Jabeen betebeharra izango da etxarte barruko patioak, orube partikularrak, merkataritza-galeriak eta antzekoak garbitzea.
- 3.- Elementu pribatu horiek guztiak garbi dauden kontrolatu eta ikuskatuko du Udalak eta arduradunei horiek garbitzeko eskatuko die, horretarako udal zerbitzuek emandako jarraibideen arabera.

35. artikulua. *Orube eta lursail pribatuak*

- 1.- Orube eta lursailak hondakinik eta zaborrik gabe edukiko dituzte jabeek, osasun, higie, segurtasun eta apaindura publikoari dagokionez egoera onean mantenduz eta, hala badagokio, sasitza kendu, arratoiak hil eta desinfektatu ere egin beharko dituzte.
- 2.- Orubeak jabetza publikokoak nahiz pribatukoak izan, Udalak eskumena izango du aurreko artikuluan adierazitako garbiketa-lanak ikuskatzeko eta baita subsidiarioki egiteko ere, nahiz eta ordaindu jabeek egin beharko duten.
- 3.- Artikulu honetako lehen paragrafoan aurreikusitako egoera gertatzen ez bada edo agerikoa bada jabeak ez daudela, horien orde eta legezko muga arabera, Udalak beharrezko diren neurriak hartuko ditu eta, aurreko paragrafoan adierazitako helburuak betetzearren, lursailak sartu ahal izango da, horrelakoetan sortzen diren kostuak jabeek egotziko zaizkielarik. Udalak eskumena izango du jabetza pribatuko orubeetako hesia behera botatzeko, herriaren interesetatik bertara sartu ahal izatea beharrezkoa den kasuetan, eta sortzen diren kostuak jabeek egotziko zaizkie.

IV. TITULUA

I.KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK

36. artikulua. *Arau-haustea*

- 1.- Administrazioko arau-hauste izango da Ordenantza honetako xedapenak eta bertan ezarritako debekuak urratzea.
- 2.- Ordenantza honetan xedatutakoak urratzen direnean Alkatetzak zigorrak ezarriko ditu, Titulu honetan araututakoaren arabera eta legeek baimendutako muga barruan, kasu bakoitzean sor litezkeen erantzukizun zibil eta penalak jartzei utzi gabe.

37. artikulua. Arau-hauste motak

1.- Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke honakoen arabera: nahita egin den, gizalegearen aurkako jokabidea izan den, utzikeria maila, pertsonen osasun eta segurtasunerako arriskua, eragindako kaltearen larritasuna eta arau-haustea egiten den lehen aldia den ala ez.

2.- Arau-hauste arinak izango dira jabari publikoko ondasunetan eragindako kalteak, baldin eta horien zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa ez bada.

Arau-hauste larriak izango dira jabari publikoko ondasunetan eragindako kalteak, baldin eta horien zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa eta 10.000 eurotik beherakoa bada.

Arau-hauste larria izango da agintaritzaren agenteek Ordenantza honetako xedapenak betetzeko eskatu eta agindu hori ez betetzea, betiere, arau-hauste horrek arau-hauste penalaren ezaugarriak ez baditu. Aurreko bi urteetan hiru arau-hauste arin egin izanak, hurrengo arau-haustea larritzat hartzea ekarriko du.

Arau-hauste oso larriak izango dira jabari publikoko ondasunetan eragindako kalteak, baldin eta horien zenbatekoa 10.000 eurotik gorakoa bada.

Aurreko bi urteetan hiru arau-hauste larri egin izanak, hurrengo arau-haustea oso larritzat hartzea ekarriko du.

Arau-hauste arinak izango dira ondoko artikuluei dagozkienak:

- 6.2.a), b), c.1), d), e), f), eta g)
- 7. a), b), c) (*zuhaitzei dagokiena*), d), eta f)
- 9. art.
- 10. art.
- 11.2 art.
- 14.1, 15, 18, 21 eta 22.1 .
- 30.2 art.
- 31.1 eta 32.2
- 33. art.
- 34. art.
- 35.3 art.

Arau-hauste larriak izango dira ondoko artikuluei dagozkienak:

- 6.2.c.2)
- 7. art. (*materialak pilatzeari dagokiona*)
- 23, 24, 25, 26 eta 27. artikulak
- 28.1. art.

- 32.1.5 art.

Arau-hauste oso larriak izango dira ondoko artikuluei dagozkienak:

- 7.c) art. (*zuhaitzak mozteari, inausteari edo hausteari dagokiena*)
- 7.e) art. (*produktu toxikoak botatzeari dagokiona*)

38. artikulua. Zigorrak

1.- Arau-hauste arinek 60 eta 750 euro bitarteko isunak jasoko dituzte; arau-hauste larriek 751tik 1.500 eurora bitartekoak; eta arau-hauste oso larriek, berriz, 1.501etik 3.000 eurora bitartekoak.

Arau-hauste arinak Ordenantza honen eranskinean jasotako zerrendaren arabera zigortuko dira.

Isun gogorrak edo oso gogorrak ote diren erabakitzeko orduan, kontuan hartuko dira arau-hauslearen erruduntasuna eta administrazioko arau-haustea egiteko garaian gertatu diren gainerako zirkunstantziak eta bereziki honakoa hauek:

- ❖ Arau-hausteak gizartean duen ondorioa.
- ❖ Osasunarentzako duen arrisku-maila.
- ❖ Arau-haustea nahita eta behin edo gehiagotan egin den.
- ❖ Bidegabe lortutako onura.
- ❖ Zehapen-espedientea amaitu aurretik eska zitezkeen neurri zuzentzailerik hartu den.
- ❖ Arau-haustea zenbaterainokoa den zehazteko garaian, aringarriak edo larrigarriak izan daitezkeen zirkunstantzia guztiak.

2.- Zenbateko horiek aplikatuko dira sektorean sektoreko arauak xedatzen dituztenez gain.

Ordenantza honetan sartutako zenbait jardueren kasuan Zarauzko Udalean indarrean dauden beste ordenantza berezi batzuetara jo behar bada, horrelakoetan, ordenantza horretako aurreikuspenen arabera jarri beharko dira zigorrak.

3.- Ezar daitezkeen isunez gain, jabari publikoko ondasunei eragindako kalteak eta galerak ordaindu egin beharko dira, udal zerbitzu eskudunek kalteen zenbatekoa neurtu ondoren. Kalte-ordain horien zenbatekoa modu betearazlean ezarriko du zehapena jartzeko eskumena duen organoak.

4.- Arau-hauste larriak edo oso larriak berriro eginez gero, arau-hausleari udal baimen eta kontzesioen onuradun izateko gaitasuna ken lekiok, urtebetetik hiru urtera bitartean.

5.- Udaltzaingoak konfiskatu ahalko ditu Ordenantza honetako arau-hausteak egiteko erabiltzen diren tresna, merkantzia, material edo bitartekoak eta baita arau-haustea egitean lortutakoa ere, indarrean dagoen araudian aurreikusitakoarekin bat etorrira.

6.- Isunak zehapen-espedientea ebatzi aurretik ordaindu ahalko dira, eta horrelakoetan espedientearen instruktoreak salaketaren jakinarazpenean idatzitako kopuruaren %50 gutxiago ordainduko da.

39. artikulua. Borondatezko lanak isunen orde

1.- Zigor ekonomikoak jarri beharrean, kaltea konpontzeko eta borondatezko lana egiteko aukera egongo da.

2.- Arau-hausleak bere borondatez eta zehapen-espedienteari hasiera eman aurretik konpondu badu egindako kaltea, aurretiazko informazio-aldian espedienteari hasiera ez emateko eska dezake, ez ordea, Udalak baldin badaki arau-hausleak gizabidearen aurkako jokabidea izaten duela behin eta berriro.

3.- Arau-hauste bat egin eta gainerako herritarrei sortutako kalteak ahal diren neurrian konpontzeko asmoz, arau-hausleak zigorra barkatzeko eskatu dezake eta herritarren onurarako borondatezko lanak egitera konprometitu. Gizabidezko jokabideak sorraraztera edo antzeko ekintzek eragindako kalteak konpontzera bideratuta egongo dira borondatezko lan horiek.

Lan horiek norbere borondatez egiteko direnez gero, ez dira zigortzat joko.

II. KAPITULUA. ERANTZULEAK

40. artikulua. Erantzuleak

1.- Ekintza publikoetan antolatzailea edo sustatzailea izango da erantzulea.

2.- Obrek bide publikoan eragindako zikinkeria kentzeko erantzukizun osoa sustatzaile eta kontratistena izango da, baita ibilgailuek zamalanetan edo obra-tokiko sarrera eta irteeretan sortutako zikinkeriaarena ere.

3.- Kanpoko publizitatearen inguruan egindako arau-hausteen kasuan, iragarlea izango da erantzulea.

4.- Animaliek pertsonen edo gauzei eragindako kaltearen eta sortutako zikinkeriaaren erantzuleak animalien jabeak, eta subsidiarioki, animaliak daramatzatenak izango dira.

5.- Gainerako kasuetan Ordenantza honetan xedaturikoa urratzen duen pertsona izango da erantzulea.

41. artikulua. Adingabekoen erantzukizuna

1.- Haurraren eskubideei buruzko Nazio Batuetako Hitzarmenak ezarritakoaren arabera, udal agintaritzek adingabekoen inguruan hartzen dituzten zehapen-neurri guztietan umearen interesak izango du lehentasun osoa. Era berean, adinaren eta heldutasunaren arabera, adingabekoek eurei dagozkien gai guztietan entzunak izateko eta beren iritziak kontuan izateko duten eskubidea bermatu egingo da. Adingabekoren batek Ordenantza honetan agindutakoa urratzen badu, bere aita, ama, edo bere zaintzaren ardura duten pertsona nagusiak izango dira erantzuleak.

2.- Arau-hausleak adingabekoak badira, umeen edo nerabeen eskubideak, garapena eta prestakuntza babesteko asmoz, diru-zehapenen ordezkari era honetako neurri zuzentzaileak ezarri ahalko dira: prestakuntza saioretara joatea, komunitatearentzat lanak egitea edo gizalegearekin zerikusia duen beste edozein jarduera-mota egitea. Neurri horiek arrazoituta hartu behar dira, eta egindako arau-haustearen eta arau-haustek jasotzen duen zigorraren arabera izango dira. Horretarako, gurasoen, tutoreen, zaintzaileen eta hezitzaileen iritzia eskatuko da eta iritzi loteslea izango da.

Gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak izango dira euren mende dauden adingabekoen arau-haustek eragiten dituzten kalteen erantzule zibil subsidiarioak.

3.- Era berean, gurasoak, tutoreak edo zaintzaileak izango dira adingabekoek egindako arau-hausteen erantzule zuzenak eta solidarioak, baldin eta beren aldetik erru edo utzikieriarik egon bada edo araua bete ez badute.

III. KAPITULUA. KALTEA KONPONTZEA, ETA GARBIKETA ALDETIK LEHENGO EGOERARA ITZULTZEA

42. artikulua. Kalteak ordaintzea

1.- Arau-hausleek eragindako kalteak beti ordaindu beharko dituzte haien erantzukizuna dutenek.

2.- Dagokion zehapen-espeditentari hasiera eman ondoren, arau-haustea egin aurretik gauzak zeuden egoera berera itzultzeko beharrezko diren ekintza guztiak egingo ditu Udalak obligaziodunaren kontura, dagozkion zigorrak ezartzeari utzi gabe.

3.- Ordenantza honetan agindutakoaren aurka ageri-ageriko ekintzak egiteari uzteko aginduko du Udaltzaingoak eta, aldi berean, agindua betetzen ez duten arau-hausleei galarazi egin beharko die ekintza horiek egiten jarraitzea, dagokion zigorra ezartzeari utzi gabe.

IV. KAPITULUA. PROZEDURA

43. artikulua. Zehapen-prozedura.

1.- Zehapenak ezartzeko garaian, gai honetan zehapen-ahalmena gauzatzeko legez edo arauz ezarrita dagoen prozedurara egokitu beharko da.

2.- Zehapen-prozedurari hasiera emateko ahalmena duen organoak baldin badaki gertakariren bat administrazioko arau-hauste izateaz gain arau-hauste penal ere izan daitekeela, organo judizial eskudunari jakinaraziko dio eta, zehapen-prozedura hasita badago zehapen-prozedurarekin ez du aurrera jarraituko, harik eta agintaritza judizialak ezer esan arte.

Zehapen-espedientea etenda dagoen bitartean, arau-haustearen preskripzio-epea nahiz prozeduraren beraren iraungipena ere etenda egongo dira.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza, hasierako izaeraz, 2010eko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2010eko urtarrilaren 28an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza, behin betiko izaeraz, 2010eko apirilaren 28an egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2010eko maiatzaren 5ean
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, Ordenantzaren testu osoa 2010eko maiatzaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (88 zk.) argitaratu zela, eta 2010eko ekainaren 1ean sartu dela indarrean.

Zarautzen, 2010eko ekainaren 1ean
Jarduneko idazkaria

1. ERANSKINA

GRAFFITIAK PINTATZEKO ESPAZIOAREN ERABILERA BAIMENTZEKO ARAUDIA.

1.- Materialak.

Oro har pintoreek ekarri beharko dituzte esprai-potoak edo graffitiak pintatzeko materiala, baldin eta Udalak ez badu eskaririk egin leku jakin batean lanen bat egiteko. Bigarren kasu honetan Udalak berak emango ditu sprai-potoak edo behar den materiala.

Horma batean lehendik dauden lanak estaltzeko horma berriz ere margotu behar bada edo horma lehen aldiz margotu behar denean ere, horretarako pintura zuria Udalak berak emango du eta baita pintura aplikatzeko materiala ere. Pintoreek dagokion udal departamentuan baimena eskatu beharko dute horma zuriz pintatzeko, lehen aldiz pintatzeko izan zein lehendik dagoena estaltzeko izan, eta pintoreek eurek egin beharko dituzte pintatze-lanak.

Alkatetzak emango du horretarako baimena, Kultura, Euskara, Gaztedia eta Hezkuntzako informazio-batzordearen aldeko irizpena jaso ondoren.

SEGURTASUN-ELEMENTUEN ERABILERA DERRIGORREZKO DA PINTOREENTZAT, ETA BAIMENA EMAN DUEN DEPARTAMENTUAK BEHIN-BEHINGOZ EDO BEHIN-BETIKO KENDU AHAL IZANGO DIE BAIMENA ARAU HAU BETETZEN EZ DUTEN GUZTIEL.

2.- Pintoreen betebeharrak.

Hauek dira pintoreen betebeharrak:

- Dagokion departamentuari jakinarazi egin beharko diote lan bat egiteko asmoa dutela. Egin behar duten lanaren krokis bat eta beren datu pertsonalak ere aurkeztu beharko dituzte.
- Margolana egin ahal izateko jabetzaren baimena lortu beharko dute.
- Segurtasun-elementu guztiak erabili beharko dituzte (latexezko eskularruak eta aurpegi-maskara).
- Pintatu beharreko zona garbi-garbi eduki beharko dute (spray-poto hutsak, paperak, lata hutsak etab.).
- Lanak horretarako egokitutako tokian egin beharko dituzte, inoiz ere ez baimendu gabeko toki batean.

ARAU HORIETAKOREN BAT BETETZEN EZ BADA UKATU EGINGO DA, BEHIN-BEHINGOZ NAHIZ BEHIN-BETIKO, PINTATZEKO BAIMENA, ETA HORREZ GAIN, EZ BETETZE HORREK BEREKIN EKAR DITZAKE LEGEZKO ERANTZUKIZUNAK.

3.- Debekuak

Erabat debekatuta dago egindako lanak ikus ditzakeen inor mintzeko moduko lanik egitea.

Erabat debekatuta dago pertsona zehatzei buruzko erreferentzia egiten duen lanik egitea, pertsona horiek dena delakoak izanda ere, baldin eta lan horiek zuzenean edo zeharka min ematen badie.

Testu edo margolan mehatxagarri, iraingarri edo Giza Eskubideen Aldarrikapeneko edozein artikuluri eraso egiten dionik baldin badago muralen batean, edo edozein herritar edo entitatek iraindu edo laidotu dutelakoan hala eskatzen badu, Alkatetzak 2008ko otsailaren 15ean Dekretu bidez agindutako protokoloan adierazitako prozedura aplikatuko da.

Margolanak kentzea

Mural horiek behin-behineko izaera edukiko dute eta parte-hartzaileek uko egingo diete egindako lanen egile-eskubide guztiei. Lanak Udalaren jabetzakoak izango dira eta Udalak erabakiko du noiz ezabatu behar diren graffiti berriak egiteko edo, besterik gabe, horma garbi uzteko. Oro har, gutxienez hiru urtetan egongo dira, baina betiere baldintza onetan mantentzen badira eta ordezkatu beharrik ez badaude.

Baimendutako lekuak

- Autopista azpiko pasabidea (Abendaño)
- Autopista azpiko pasabidea (Hilerria)
- Zelaiko lurpeko pasabidea.

2. ERANSKINA

ARAU-HAUSTE ARINAK ZIGORTZEKO ISUNEN ZENBATEKOEN ZERRENDIA.

— 6. artikulua urratzea

6.2.a	Hiri-altzariak hondatzea errotik aterata, iraulita, erabiltzeko moduan ez direla utzita edo txikituta	100 euro
6.2.b	Zaborrak... botatzea horretarako jarritako zakarrontzietatik kanpo	60 euro
6.2.d	Edukiontzietara pintura-hondarrak eta antzekoak isurtzea.....	60 euro
6.2.e	Edukiontzia tokiz mugitzea.....	100 euro
6.2.f	Bide publikoan gizakiok ura edateko dauden iturrietatik animaliei zuzenean edaten uztea.....	60 euro
6.2.g	Iturri publikoetako hodiak, txorrotak eta gainerako osagaiak berez erabili behar diren bezala ez erabiltzea	60 euro

— 7. artikulua urratzea

7.2.a	Landareak lapurtzea	100 euro
7.2.b	Landareak edo belarra hondatzea eta kanpatzea.....	100 euro
7.2.d	Zuhaitz-azalak grabatzea edo pintatzea, puntak iltzatzea.....	200 euro

— 9. artikulua urratzea

9.2	Loreontziak eta landareak ureztatzea bide publikora ura isuriz	60 euro
9.3	Alfonbrak... astintzea ezarritako ordutegitik kanpo edo kalte nahiz eragozpenak sortuz.....	60 euro

— 10. artikulua urratzea

10.1	Ibilgailuak bide publikoan garbitzea	100 euro
10.2	Motorraren olioak aldatzea edo kalea zikindu dezakeen beste edozein likidorekin ibiltzea	200 euro
10.3	Kalean kaka edo pixa egitea.....	100 euro
10.3	Txistua botatzea.....	60 euro
10.4	Bide publikora botatzea edo bertan uztea hondakinak, zaborrak	60 euro
10.4.	Panfletuak bide publikora botatzea	100 euro